

# Kostuen Egitura

Gure ideiak hainbat kostu izango ditu, kostu finkoetan eta aldakorretan banatu ahal direnak:

Alde batetik, **kostu aldakorretan enpresa trasportatzailea** aurkitzen dugu, aldakorra dena ekoizitako landareen arabera behar diren kamioi kantitatea desberdina izango dela eta. Seurrek **7,35 euro BEZA-rik gabe** kobratzen du **bidalketa bakoitzeko**.

Bestalde, **kostu finkoetan** gure lurretan **hasieran** lan egingo duten **lorenzain bakarra** dago, nahiz eta etorkizunean 5 lorezainetara ailegatzea espero izatea. Bere soldata, gutxi gora behera, 1250 eurokoa izango da, zergak barne, beraz, 1250 euro hilabetero ordainduko ditugu, hau da, **15.000 euro urtero**.

Kontratatuko ditugun **psikologoak** ere kostu finkoetan egongo dira, nahiz eta ikastetxearen arabera gehiago edo gutxiago kontratatzea, epe luzean gurekin lan egiten egongo direlako eta soldata beti berdina izango delako, bakarrik enpresaren hasiera-hasierarekin izango duten soldata desberdina izango da. Etorkizunean ikastetxe bakoitzarako bi psikologo egongo dira, beraz, gutxi gora behera 50 ikastetxetan lan egitea espero dugunez, 100 psikologo kontratatu behar ditugu eta bakoitza 2000 euroko soldata edukiko du. Hala ere, **hasieran ikastetxe bakoitzarako psikologo bat** egongo da eta bakarrik ikastetxe batean lan egitea espero dugu, bere soldata 1800 eurokoa izaten, zergak barne, beraz, urteko kostua **21.600 eurokoa** izango da.

Esandakoaz gain, gure landareak bidaltzeko behar ditugun **mazetak** ere kostu finkoak dira, **hasieran hilero 350 mazeta** erosiko ditugu, horrela 346 landare beti bidaltzeko prest izateko eta beste 4 segurtasun stockan izateko. Beraz, guztira, mazeten balioa 140 eurokoa izango da hilero, **1680 euro urtero**, sorta batean 7 mazetak daudelako eta sorta bakoitza 2,8 euro balio dituelako. Hala ere, etorkizunean hilero 917 mazeta erosiko ditugu.

Honetaz gain, **cosmos eta ilena landareak** bi hilabetetan behin erosiko ditugu eta mota bakoitzeko formatu handiko pakete bat eskatuko dugu, orduan, 1750 eta 175 hazi etortzen direnez hurrenez hurren, 1925 landare izango ditugu bi hilabeterako, hau da, 1962 landare gutxi gora behera hilabete batean. Pakete bakoitza 10 euro balio duenez, bi hilabetetan 20 euro erabiliko ditugu, eta urte batean **120 euro**.

Hau guztia kontuan izanda, hasieran **urteko kostu finkoak 38.400 eurokoak** izango dira.

**Hona hemen enpresaren kostuen taula:**

	Hasieran			Etorkizunean		
	Kantitatea	Kostu osoa hilabete batean (eurotan)	Kostu osoa urtean (eurotan)	Kantitatea	Kostu osoa hilabete batean (eurotan)	Kostu osoa urtean (eurotan)
<b>Kostu aldakorrak</b>						
Enpresa transportatzailea	-	-	-	-	-	-
<b>Kostu finkoak</b>						
Lorezainak	1	1.250	15.000	5	6.250	75.000
Psikologoak	1	1.800	21.600	100	200.000	2.400.000
Mazetak	350	140	1.680	917	366,8	4.401,6
Landareak	1925 bi hilabete	20 bi hilabete	120	1925 bi hilabete	20 bi hilabete	120
<b>Guztira</b>			38400			2.479.521,6

Beste alde batetik, eta hasierako inbertsioei dagokionez, aurreko kostuak aurrera eraman ahal izateko diru kantitate bat inbertitzea beharrezkoa izaten da; gure kasuan, 20.000€ inbertituko ditugu, hori dela eta, landareak saltzean gure diru kantitatea gero eta altuagoa izango da, eta beraz, kapaz izango gara guztizko kostuak ordaintzeko.

Halaber, lehen aipatutako 20.000 €-ak hasten diren enpresetan inbertitzen duten enpresen dirutik eta gure dirutik, hau da, "Psycho Flora"-ren buruzagiok diru kantitate bat aurreztuta izaten dugu gure proiektua hasteko ahalmena izatearren, aterako ditugu. Gauzak horrela, landareak ordainduko ditugu, eta horrenbestez, mozkinak lortzen hasiko gara. Horrela, aipatutako etekin horiekin eta hasierako inbertsioaren diruaren zati batekin, beste bigarren eta enpresa nagusia, psikologiarena, ordaintzen hasiko gara, hots: "Psycho Flora"-ren psikologoak, soldadak... hain zuzen ere, dokumentu honen aurreko galderan aipatutako kostu guztiak.